

Diru-iturriak

Studify aplikazioak diru sarrerak eduki behar ditu denboran zehar bizirauteko, eta horretarako, diru iturri hauetaz baliatuko gara:

Aplikazioan jarritako publizitatea



Gehien bat, publizitatearen bidez lortuko ditugu gure irabaziak, hain zuzen ere, sarreraren %60. Noski, ikasleentzat bideratutako iragarkiak eskainiko ditugu. Adibidez, enpresa batek bere zerbitzuak edo produktuak gure aplikazioaren bidez eskain nahi baditu (Betiere hezkuntza eta gazteekin erlazionatuak), haiekin akordio batera helduko gara diru kantitate edo interes bat lortzeko.

Artesaria

Komisioei begira, guztira gure etekinen %40 inguru izatea aurreikusten dugu. Horren barruan, 2 komisio mota ezberdintzen ditugu: alde batetik, iragartzeagatik, eta bestetik, liburuen salerosketagatik.

- **Albiste feed-an irakasle, psikologo, akademiak iragartzeagatik lortutakoak.**

Aukera emango dugu irakasle edo ikasleak laguntzen lan egiten duten pertsonen gure "albiste feed"-an publizitzeko aukera. Eta horregatik, eskuratutako bezero berri bakoitzagatik lortutako diru kantitatearen %10-a ordainduko digute.




- **Liburuen salmenten gestioagatik diru-sarrerak:**

Ikasleen artean marketplace bat izango du aplikazioak, non ikasleen artean liburuak salerosiko diren. Bi ikasleak harremanetan jarri ondoren liburua saltzean guk diru kantitatearen %7 eskuratuko dugu bitartekari lana egitearren, soilik online egiten



bada salerosketa; horrela ez balitz, ez genuke komisiorik kobratuko (Salerosketa enpresek egiten duten antzera).



Hasierako inbertsioa:

Hasierako inbertsioa handia izango denez (ekipamendu digitalak, programatzaileak, patenteak...) sektore publikoak ekintzailetasunaren alde eskaintzen dituen laguntzak eskatuko ditugu. Baina argi utzi nahi dugu horiek bakarrik **Studify** hasieran aurrera ateratzeko izango direla, eta ondoren gure kabuz baliatzeko kapazak izango garela, gure **diru iturrie**kin eta laguntzarik jaso gabe.